

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko apirilaren 27a. IX. urtea. 2.399. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



HITZA

→ **Inkiszioaren garaira salto egiteko aukera.** Eneko Arizaren Lagunak kultur elkarte ibartarraren bigarren lana, *Sua* filma, ekainaren 2an estreinatuko dute Ozaetako Otaza auzoan. Atariko moduan, ordea, pelikulako argazkiak ikusteko aukera dago Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Maiatzaren 25a arte bisitatu ahal da erakusketa, eta bertan, grabaketan erabilitako jantziak ere ikusi ahal dira. ◊7

**Goazen plazara!**  
ekimenean  
parte hartzeko  
deia egin du  
Herrirak

Hileko azken ostirala da gaur, eta euskal presoen eta iheslarien aldeko elkarretaratzetara joateko eskatu du mugimenduak ◊2

**Mikel Nieve** Txirrindularia

«**Giroan lehen hamar postuetan sailkatzea da nire helburua**»

Leitzarrak Gaztela eta Leon probako balantze txarra egin du eta arantza maiatzaren 5ean hasiko den Italiako proban kendu nahi du ◊4

**Loatzoko XX. Igoera-Jaitsiera proba izango da igandean**

Irteera 10:30ean egingo dute; izena hasiera baino ordu erdi lehenago eman behar da Amasako Uxo Toki elkartearen ◊3

**Erromeria eta askoz gehiago, Aralarko larreak irekitzeko jaian**

Maiatzaren 1ean 12:00etan botako dute suzuria Larraitzen; ondoren, idi pareta eta zaldiaren arteko proba izango da ◊6



**TOLOSALDEA** GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



“**ATE IREKIEN EGUNA**”

MAIATZAK 3, OSTEKUNA • 17:00etatik 21:00etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

**Gutuna**

**Herritar izateko beste eredu baten alde**

Diotenez, ur tanta bakoitza ez omen da uholdearen erantzule sentitzen, ezta haren ondorioena ere. Oso egoki laburbiltzen du gure gizartean gertatzen dena. Ziur asko gutako bakoitza herritar arduratsu, eredugarri eta besteekiko errespetuzkoa sentitzen da, legeak hitzez hitz betetzen dituelako edota, besterik gabe, zergak ordaintzen dituelako.

Kontua da errealtatea egoskorra dela, eta denon artean eskulako 'uholdea' sortzen ari gara eta jakina, ondorioak ere ikaragarriak dira.

20 urte darमतzaguz kontenedoreen bidez hondakinak biltzen, eta Tolosak etxeko hondakin %23a birziklatzen du soilik. 2011. urtean, 5.400 tona zabor bidali genituen tolosarrok Beasaingo Sasieta zabortegira. Hemendik aurrera gure zaborra Zubietara bidaltzea nahi dute, erretzeko. Ikusten ez dena existituko ez balitz bezala, nonbait.

Gure ustez hau ez da jarrera arduratsua. Tolosar guztiok sortzen dituguz hondakinak, eta hauei ahalik eta konponbide arrazoizkoena ematea gure betebeharrak dira.

Tolosarrok hondakinak nola bildu erabakitzeko eskubidea dugula diote batzuk. Benetan esan nahi dutena zera da: tolosarrok ez birziklatzeko eta kutsatzen jarraitzeko eskubidea dugula. Baina orduan, beasaindarek ere eskubidea izango dute gure zaborra jaso nahi ote duten erabakitze, edota Zubietara ingurukoek gure zaborra erre nahi ote duten erabakitze, ezta?

Gure ustez, ez da batere serioa planteatzen ari diren eztabaida, are gehiago, populista eta demagogikoa iruditzen zaigu. Eztabaida bere osotasunean planteatu behar da, hau da, nola konponduko dugu tolosarrok guk sortzen dugun arazoa? Eta eztabaidak muga argia behar du: tolosarrok zaborrak ezin du Tolosatik irten, ezta kilo txar bat ere. Norberaren askatasunak ezin baitu inolaz alboratu.



tetu, zabortegien edota errauskailuen bidez.

Mankomunitateak egindako lana eta inbertsioa handiak izan dira azken urteotan, baina datuak datu, oso gutxi birziklatzen dugu. Arazoa errokoa da, sisteman bertan datza, gure etxeratan hasten da eta zaborrantzian bukatu.

Zer egingo dugu beraz, San Blaseko zabortegia berriz ireki? Edota berri bat martxan jarri, segituan betetzeko? Edota errauskailua eraikiko dugu Apanttan?

Gaur egun badira arrazoizko irtenbideak, konponbide osasuntsu eta ekologikoak, eta zailtzarrik gabe, askoz ere modernoagoak, %80ean birziklatzea lortzen dutenak.

Konponbide honek lan gehixeago egitea eskatzen du, gutako bakoitzak etxeko ohiturak aldatzea, pittin batean bada ere; besterik ez. Eta horrez gain, hondakinak biltzeko eta tratatzeko modua ere aldatu egin behar da, gure esfortzuek bere fruitua eman dezan.

Izan ere, guk era egokian lan pixka bat egindakoa, birziklatzen benetan saiatutakoan, izango dugu aldamenekoei laguntza eskatzeko eskubidea. Guk ahal dugun guztia egindakoan izango dugu indar moralak gainontzekoei zerbait eskatzeko.

Eztabaida erakargarri eta ilusionagarria da aurrean duguna, hondakinak kudeaketaren gaia gainditzeko duena ez bairrik gabe. Gizarte honen ereduak dugu eztabaidagai, herritar izateko modua ere bai. Guk herritargo heldu, arduratsu, ongi hezi eta modernoaren alde egiten dugu.

Bene-benetan sinesten dugu Tolosa eta tolosarren.

**Antton Izagirre eta beste 30 sinadura.**

# «Mezu argia» zabalduko dute bizi osorako zigorraren aurka, azken ostiralean

Maiatzaren 19an Goazen plazara! ekimenean parte hartzeko deia ere egingo dute eskualde osoan

**Itzea Urkizu**

Eskualdean hileroko azken ostirala izango da gaur. Hileroako elkarrateratzea egiteaz gain, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak presoengun idatzi berri duen ebazpena salatuko dute Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan, bide beretik maiatzaren 19ko Goazen plazara! ekimenean parte hartzeko deia egin.

Tolosaldeko Herrira mugimenduak «bizi osorako kartzela zigorrara preso politikoen aurkako irizpide orokor bilakatu» dela salatu du, eta bake eta demokrazia ezsetanotoki baten alde lan egingo dute-lana nabarmendu du.

Era berean, «Gobernuak euskal preso politikoen eskubideak urratzen jarraitzeko asmoa» duela azpimarratu nahi izan du eskualdeko Herrira mugimenduak: «Gallardon ministroak egindako adierazpenen arabera, legedia berezia eta salbuetspenekoa muturrerara eramateko asmoa du Espainiako Gobernuak, euskal preso politikoei bizi osorako zigorra ezarri».

Herrira mugimenduak, mezu honetan, gaixotasun larriak dituzten presoengoa ere salatu nahi izan du: «Gaixotasun larriak dituzten 14 presotik 5ek, 20 urte baino gehiago daramatzate espetxean, eta orain, bizi osorako zigorra ezarri diete». Egoera honen aurrean, berariaz azpimarratu du Herrirak, «giza eskubideekiko errespetua bestelako interes poli-



Apirilaren 21ean aurkeztu zuten Asteasuko Herrira Eguna. A. IMAZ

tikoetatik bereizi behar» dela: «Giza eskubideak errespetatzeko dira, eta ez urratzeko».

**«Gatazka gainditzeko ilusioa»**

Euskal Herriko garai politikoa berriki «gatazka gainditzeko ilusioa» piztu duela eta, «gatazkaren arrazoiak eta ondorioak atzean uztea» beharrezkotzat jo du Herrira mugimenduak: «Euskal Herriko belaunaldi berriek historia liburuetatik baino ez dituzte ezagutu behar espetxea eta erbeste».

Horrela beraz, hileroko azken ostiraleko elkarretaratzeaz harago, datorren maiatzaren 19an eskualdeko plazetan antolatuko dituzten jardueretan parte hartzeko deia ere luzatu dute: «Maiatzaren 19an Goazen plazara! ekimenarekin, milaka eta milaka pertsona euskal presoengun eskubideen alde kalera ateratzeko deia egiten diogu hiritargoari. Herritarren ekarpena, konpromisoa, mobilizazioa eta ekimena beharrezkoak izango dira».

Hain zuzen ere, bihar aurkeztuko dute, Anoetan, Herrira mugimendua, 11:00etan. Aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Goazen

plazara! egitasmorako deialdia egingo dute.

Azkenik, aipatzekoa da, Asteasun ere aldarrikapen eguna izango dutela bihar, Herrira Egunean. 11:30ean hasita, kanpai errepekia, giza proba, preso eta iheslarien aldeko ekitaldia, herri bazkaria, Irrien Lagunak, kantu jira eta kalejira izango dira. Jaia 20:00etako kalejirarekin amaituko dute.

**↓ Azken ostirala**

**ORDUTEGIAK ESQUALDEETAN**

- Aduna.** 20:00etan.
- Alegia.** 19:30ean.
- Amezketak.** 19:30ean.
- Anoeta.** 19:30ean.
- Asteasu.** 20:00etan.
- Berrobi.** 19:30ean.
- Berastegi.** 19:30ean.
- Gaztelu.** 20:30ean.
- Ibarra.** 19:30ean.
- Ikaztegieta.** 20:30ean.
- Irura.** 19:30ean, plazan.
- Leitza.** 20:00etan.
- Lizartza.** 20:00etan.
- Tolosa.** 19:30ean.
- Leaburu.** 20:15ean.
- Villabona.** 20:00etan.
- Zizurkil.** 20:00etan.

## Eskualdeko aizkolariak Urrezko aizkolarien saioetan ariko dira

Datorren asteburuko Urrezko aizkolarien hiru jardunaldietan ariko da eskualdeko aizkolariren bat

**I. Urkizu**

Datorren asteburuan, eta ondorengo zubian, Urrezko aizkolarien lau saio izango dira, Armen-

tian (Gasteiz, Araba), Beran (Nafarroa), Estibalitzen (Gasteiz, Araba) eta Lazkaon (Gipuzkoa). Hiru saiotan izango da eskualdeko ordezkaria, lehen mailan nahiz 19 urtetik beherakoen mailan.

Unai Otaño ibartarra Gasteizen ariko da bihar, Armentian, 12:30ean. Igandean, berriz, Berako Eztegara frontoian Urrezko mailako eta gazte mailako lehiak jokatuko dituzte. Maila gorene-

an, Jon Rekondo eta Arkaitz Olano ariko dira. Gazte mailan, berriz, Arkaitz Olano II izango da lehiari ariko den eskualdeko aizkolaria bakarra.

Azkenik, asteartean, maiatzak 1, Lazkaoko plazan, 13:00etan hasiko da Urrezko mailako saioa. Igandean Beran saikatuko diren lehen bi aizkolarian ere bertan ariko dira, eta eskualdetik, Jexux Mari Mujika ibartarra ariko da. **• tolosaldea@hitza.info**

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Amasatik Loatzorako bidea azkarren egiten duenak saria jasoko du, etzi

Erniopeko VIII. Mendi Ibilaldian izena emateko aukera zabalik dago, 'erniozaleak.org' webgunean

## Asier Imaz

XIV Orduak egiteko asmoa dutenek, ondorengo egunetan, aukera bikaina izango dute prestaketa lanetan urrats bat aurrera emateko. Hilaren 29an, igandean, Loatzoko XX. Igoera-Jaitsiera jokatu da Amasan, eta maiatzaren 13an, Erniopeko VII. Mendi Ibilaldia, Larrauldik abiatuta.

Itasoa maila kontuan hartuta, Amasa 90 metro gorago kokatzen dute mapek, Loatzo, aldir, 631ra. Penditz horri heldu behar diote proban ateratzen diren lasterkariak igandean. Irteera ordua 10:30ean jarri dute antolatzaileek: Uxo Toki elkarteak eta Amasako gazteek. Krosean parte hartu nahi dutenek, izena elkarrean eman beharko dute egunetan bertan, dohainik, eta ordu erdi bat lehenago.

Amasako XX. Krosa edo Loatzoko Igoera-Jaitsiera jai giroan ospatu nahi dute amasarrek, eta horretarako Loatzen nahi duen guztiarentzat hamaiketakoak jarriko dute. Lasterketaren amaieran, berri, sari banaketa ekitaldiarekin zozketa egingo dute: arkumea, oilaskoak, txuleta...

Lasterketari dagokionez, irabazleak 120 euro eta txapela eramango ditu etxera; bigarrenak 80 euro eta hirugarrenak, 50.

## Ernio magaleko herrietan

Ernio mendiak magalean zortzi herri ditu. Hauen artean, Erniozaleak kultur elkartearen eskutik, Erniopeko VIII. Mendi Ibilaldia antolatuta dute. 1999an Asteasun jarri zuten irteera eta amaiera puntua, ondoren Albiztur, Aia, Hernialde, Errezil, Alkiza, Bidegoianen, eta aurtengoan, zortzigarrenean azken herriaren txanda da, hau da, Larraulena.

Izena emateko [www.erniozaleak.org](http://www.erniozaleak.org) webgunean sartu eta fitxa bete behar da. Ondoren, 15 euro ordaindu behar da irteera baino lehen. Webgune honetan, probaren inguruko informazio guztia



Amasako Krosaren eta Erniopeko mendi ibilbidearen kartelak. HITZA



agertzen da. Bi ibilbide egiteko aukera egongo da maiatzaren 13ko mendi ibilaldian. Luzeak 48,6 kilometro ditu, hamaika ordutan egiteko modukoa da, beraz. Parte hartzaileek, ibilbide hau egiteko 06:00etan egon behar dute ibilbide puntuan. Laburrak 29 kilometro ditu, sei orduko itzulia da, beraz. Mendizaleak 08:00etan irtegan dira Larrauletik. Mendi ibilaldirako bi aste gelditzen diren honetan, jadanik 80 lagunek eman dute izena.

Proba antolatzen jarraitzeko arrazoiak aztertzerakoan, urte hauetan helburuak ez direla aldatu diote Erniozaleak kultur elkarteko kideek: «Ibilaldi honetan zehar, parte hartzaile guztiei herri hauek bidez-bide eta basoz-baso, gure aurrekoek oinez igarotzen zizutuen antzera, erakustea eta ezagutaraztea».

Azkenik, eskualdeko herritarrek gonbidatu nahi izan dituzte probara Erniozaleak elkarteko kideak.

## Mikel Goñik binakako partida jokatu du gaur, 20:45ean

Irurako Kirol Astearen barruko Balarako III. Herri Krosa etzi lehiatuko da Iruran, sei mailatan

## A. Imaz Irura

Irurako Kirol Astearen barruan, Mikel Goñi pilotariak binakako partidajokatuko du gaur pilotalekuan. Beobiderek in osatuko du

## ↓ Egitaraua

### APIRILAK 27, GAUR

#### Pilota partidak frontoian

- 17:15ean. Pilota eskolako ikaslearen arteko xare partidak.
- 20:45ean. Eskuz binakako partida: Mikel Goñi-Beobide Imanol Agirre-Mintegiren aurka.

### APIRILAK 28, BIHAR

#### Xahar eta gazteen arteko olinpiada

- 10:30ean. Azken izen emate-

bikotea Goñi II.ak. Aurkariak Agirre-Mintegi izango dira.

Biharko olinpiadak antolatuta dituzte, gazte eta helduen artean, eta kirol astearen azken egunean, etzi, Balarako III. Herri Krosa lehiatuko da. Izen ematea dohainik da, [kirolakirura@gmail.com](mailto:kirolakirura@gmail.com) helbide elektronikoan edo irteera ordua baino ordu erdi lehenago. Antolatzaileak, Irurako Udalak, eskerrak eman nahi izan dizkie Aralar Kirolak, Angulas Aginaga eta Insalus enpresei.

ak eta taldeak plazan egingo dira.

- 11:00etan. Jokoen hasiera.
- 14:00etan. Bazkaria plazan.

### APIRILAK 29, ETZI

#### Balarako III. Kros Herrikoia

- 10:00etan. Izen ematea.
- 10:30ean. Aurre-benjaminen, benjaminen, alebinen eta infantilen lasterketa.
- 11:30ean. Kadeteen eta helduen lasterketa.

## Bihar egitekoa zen Haur Kantari Jaialdia bertan behera gelditu dela azaldu dute

Villabonarako izena eman duten parte hartzaileak beste saioetara bideratuko dituzte

## A. Imaz Amasa-Villabona

Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdietakoa bat Villabonan egiteko zen, bihar. Antolatzaileek, ordea, saioa bertan behera uztea erabaki dute, «zoritzarrez, kantaldi horretarako izena eman dutenen parte hartzaile kopuruarekin ezin izango baitugu saio itxuroso bat bete. Horrenbestez, saio horretarako izena eman dutenen parte hartzaileei, beste saioan parte hartzeko aukera eskainiko diegu». Erabaki honen aurrean, barkamenak eskatu dituzte, sortutako eragozpenengatik. Hala eta guztiz ere, beste emanaldiak aurrera jarraitzeko asmoa agertu dute. «eta etorkizunean data egotilen lasterketa.

## VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren jardunaldia, gaur

Lehiaketako parte hartzaileekin batera, Chiqui eta Laurak ekialdeko dantza egingo dute, Asvinenean

## A. Imaz Aduna

Asvinenean antolatuta duten VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren bigarren jardunaldia gaur jokatuko da, 22:30etik aurrera. Hala eta guztiz ere, atek 21:45ean zabalduko dituzte, sarrera bertan erosteko aukera egongo delarik. Lehiaketaren bigarren saio honetan, TIK-TAK antzerki taldearen *Zoriontasun itsua*; Mutandus Russum-en *Tarta-Taratat!*; Los Soñadores-en *Sueños* eta Sr Perez-en *Quiero ser artista* lanak ikusteko aukera egongo da. Asvineneatik azaldu dutenez, gaur artista gonbidatu bezala Chiqui eta Laura joango dira Adunako arte eszenikoaren laborategira. Bertarantz diren, beraz, ekialdeko dantza erakustaldiaz gozatzeko aukera izango dute.

## ↓ Kirola Tolosan

### OSTIRALA

#### ARETO FUTBOLA

20:30ean. Eskolapioetan bigarren mailako partida: Hirukide Plomix-Ceramicas Nogales.

### LARUNBATA

#### SASKIBALOA

09:00etan. Infantil neskek, Usabalgo beheko kantzax: Montesu-Oiarso.  
10:30ean. Kadete neskek Usabalgo beheko kantzax: Urkizu-Internacional.

#### ARETO FUTBOLA

12:00etan. Infantil mutilak, Usabalgo beheko kantzax: Laskorain-Erain.  
13:00etan. Kadete mutilak Usabalgo beheko kantzax: Laskorain-Concepto Createc.  
16:00etatik 18:30era. Uzturpen, Tolosa Kup-eko lau partida.

#### FUTBOLA

09:30ean. Usabalgo futbol zelaian, kadeteak: Tolosa CF-Euskalduna.  
11:00etan. Usabalgo futbol zelaian, Ohorezko mailako kadeteak: Tolosa CF-Touring.  
12:30ean. Usabalgo futbol zelaian, infantil txikiak: Tolosa CF-Kostkas.  
15:30ean. Usabalgo futbol zelaian, junior mailako emakumeak: Tolosa CF-Eibar.  
16:30ean. Berazubini, liga nazionalako partida: Tolosa CF-Alaves.  
17:30ean. Usabalgo futbol zelaian, senior mailako emakumeak: Tolosa CF-Ostadar.

### IGANDEA

#### ESKUBALOA

12:00etan. Kadeteak Usabalgo beheko kantzax: Tolosa-Hondarribia.

#### ARETO FUTBOLA

15:30etik 19:40ra. Uzturpen, Tolosa Kup-eko sei partida jokatuko dira.

### ASTEARTEA

#### ESKUBALOA

12:00etan. Usabalgo beheko kantzax kadeteen partida: Tolosa-Egia.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Autoa.** Ford Fiesta autoa salgai. Oso egoera onean dago eta prezio onean eskaintzen da. Interesatuek, deitu 688 681257 telefono zenbakira.

Mikel Nieve ◊ Txirrindularia

Laugarren urtea du Leitzako txirrindulariak profesional mailan. Gaztela eta Leon proban parte hartu eta gero, datorren astean hasiko den Giroa izango du hurrengo erronka nagusia.

# «Nire helburua azken urteetan izan dudana bilakaerarekin jarraitzea da»

**Iñigo Terradillos** Leitza

Apirilaren 13an hasi zen Gaztela eta Leon txirrindularitza proba izan da burutu duen azkena. Euskaltele-Euskadi taldeko lider bezala joan zen Mikel Nieve (Leitza, 1984), baina erronka berriak ez zuen aurreikusitako emaitza izan, agian, artean errekuperatzeko zuen lesioaren ondorioz. Gaztela eta Leon atzean utzi, eta Italian du orain begirada jarria, maiatzaren 5ean hasiko baita bertako Giroa.

**Zein izango da zuretzat denboraldiko hurrengo hitzordua garrantzitsua?** Orain Italiako Giroan ditut jarritako begiak, eta horretarako prestatzen ari naiz buru-belarri.

**Iazko Giroan etapa bat irabaztea lortu zenuen. Ze helburu duzu aurtengorako?** Helburua lehen 10 postuetan sailkatzea da, eta etapa baten bat irabaztea lortzen bada, askoz hobea.

Ni horretan saiatuko naiz, baina, esan bezala, helburu nagusia itzulia lehen hamar postuetan bukatzea litzateke.

**Gaztela eta Leon proba izan da burutu duzun azkena. Zer balantze egiten duzu?**

Balantze nahiko txarra. Lesio bat izan nuen, eta hori sendatu eta zuzenean joan naiz proba honetan parte hartzera. Nere buruarekin eta gorputzarekin ez naiz batere gustura egon. Orain, Giroarekin, Gaztela eta Leonen egindakoari buelta ematen saiatuko naiz.

**Nola ikusten duzu zure burua? Erabat osaturikal zaude?**

Lesiotik sendatu nahian nabil. Ez nago nahiko nukkeen bezain ondo, baina gauzak ahal dudana egokien egiten saiatuko naiz, Giroa egoerarik onenean ailegatzeko.

**Egun gutxi geratzen dira Giroa hasiteko. Nolakoak izaten dira bezperako egunetako prestaketa lanak?**

Ez dute alde handiegirik gainera-

ko egunekin. Goizean jaiki, eta egun horretan egokitzen zaidan entrenamendua egiten dut, eta ondoren, deskantsatu. Egun hauetan entrenamenduak zertxobait gogorragoak izaten dira, baina bestelakoan ez dute desberdintasun handiegirik.

**Non gustatzen zaizu entrenatzea?** Leitza inguruan ibiltzen naiz beti. Eguraldiak errespetatzen badu, herrian bertan entrenatzea gustatzen zait.

**Giroa duzu orain buruan, baina denboraldiak zer beste jomuga ditu?**

Mementoz, ez dakit. Lehendabizi, Giroa ahal dudana egokien amaitzea da nire helburua. Bertan egiten dudana lanaren arabera, erabakiko dut denboraldiko zer beste

## «Italiako Giroarekin Gaztela eta Leonen egindakoari buelta eman nahi diot»

itzuliri eman garrantzia, eta horrela moldatuko dut egutegia.

**Zer moduz dago Euskaltele-Euskadi taldea?**

Taldea nahiko ongi dago. Denboraldi hasiera ez zen nahi eta espero bezalako izan, baina, gero Euskal Herriko itzulia irabazita, taldearen helburu nagusia bete zen. Ondorioz, orain beste lasaitasun batekin, indartsuago dago taldea, aurrera begirako erronkei aurre egiteko.

**Zer eskatzen diozu zure buruari?**

Helburuak jartzea zaila da. Nik nahi dudana zera da, azken urteetan izan dudana goranzko bilakaerarekin jarraitzea, eta hobetzen joatea. Horrela jarraituz gero garaipenak etor daitezke, eta ez bada etortzen ere, behintzat maila horretan jarraituko dut.



EUSKALTEL-EUSKADI

↓ Mikel Nieve

HAINBAT DATU

- **Jaioturtea.** 1984.
- **Jaioterria.** Leitza.
- **Berezitasuna.** Mendiko etapak eta talde lana.
- **Afizionatu maila.** Caja Rural taldean aritu zen 2003. urtetik 2007.era arte.
- **Profesional maila.** Orbea-Oreka SDA taldearekin egin zuen profesional mailan debuta, 2008an. 2009. urtetik, Euskaltele-Euskadi taldean ari da.
- **Sariak.** Bi garaipen eskuratu ditu profesional mailan: 2010. urteko Espainiako Vueltako 16. etapa, Cotobello (Kantabria) mendatean amaituriko etapa eregina; 2011. urteko Italiako Giroko 15. etapa, itzuliko menditsuena, Gardeccia val di Fassan amaitu zuena.
- **Sailkapena lasterketa nagusietan.** 2010. urteko Espainiako Vueltan 11. postuan amaitu zuen, eta 2011. urteko Italiako Giroa ere 11. amaitu zuen.

**INFORMATIKO  
FUTBOLARI  
INJINERU  
ARRAUNLARI  
DANTZARI**

Ata iraklariak:  
Maiatzaren 30an eta 31an  
17:30etik 19:30era

Taldea:  
Bereizitako ikasle guztiak  
ikastetxe bideratuak behar bezala  
Euskaraz  
Eskatutakoak  
Jarrarpen pertsonalizatua

**BAT** AKTIBITATE

Ban Biaz ezazu 27 - 943 67 03 11 - hiruki@hirukiide.org - www.hirukiide.org/bat

TOLOSALDEKO IKASTOLAK

**Konfiantzan,  
Ikastola**

943 67 36 29  
www.ikastola.net

943 68 71 22  
www.ikastola.net

**Aurrematrikula**

Egna  
Maiatzaren 2tik 11ra

Ordutegia  
09:00-13:00  
15:00-17:30

**MUNDU ZABALERAKO  
ZUBIA**

**ORIXETOLOSA**  
Euskarazko Ikastetxeak

**Batxilergoak**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

Irakasgaien  
Eskaintza Zabalena

943 65 13 87  
E-mail: 012980aa@hokuitza.net www.orixet.com

Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra

**Tolosan etxe adosatua salgai:**  
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

Interesatuak, deitu  
**678 267657**  
telefono zenbakira.

Ibilbide lasai eta laua eginez, Berrobiren hainbat ikuspegi izateko aukera izango dugu. Baserri giroarekin lotura galdu ez duen herria ezagutzeko moduko ibilbidea da gaurkoa; 3 kilometroko paseoa da, herria zeharkatzen duen erreka bidelagun dela.

# Zelai errekaaren ondoko bideak

**Imanol Garcia Landa** Berrobi

**E**z da ohiko bisita lekua izaten Berrobi. Tolosatik Berastegira doan errepidetik joaterakoan igarotzen dugun herrietako bat dela etortzen zaigu burura bere izena entzutean. Igarobide diren herri guztiek gauza bera gertatzen da: bertan gelditu eta bisita egin arte, ezin duzu bere xarmaren berri izan.

Herri hori ezagutzeko ibilbidea a proposa da hau. Autobus geltokitik hasi eta bertara itzultzen da, zenbait joan etorri eginez tartean. Ibai izan nahi duen Zelai erreka bidelagun dugula egingo dugu ibilbidea.

Autobus geltokitik Berastegi aldera egingo dugu errepide nagusitik, eta herriko plazarekin egingo dugu topo. Bertan, Iriarte etxea nabarmentzen da: etxaurre

interesgarria gorde duen eraikina da, XVII. mendekoa. Plazaren ondoren eskuinera egingo dugu, eskolaren ondotik Zelai erreka aldera joanez. Hor bertan dagoen zubia igaro eta ezkerreara joango gara. Alde batean, erreka eta, bestean, zelai zabalak izango ditugu. Hainbat abere ikusiko ditugu, Berrobik oraindik baserriarekin lotura duen erakusle.

Bidean aurrera eginik, berehala ikuspegi polit bat izango dugu begi aurrean: Galtzastegi base-rria, bere armari handiarekin, eta ondoan harriz egindako zubia. Baserria igaro eta beste zubi batera iritsiko gara. Bertan buelta hartu eta bide beretik joango gara. Joan-etorriak egiteak badu bere xarma: bide beretik joan arren, paisaia ikuspuntu ezberdinetatik jasotzen duzu.

Erreka eskuinean dugula aurrera egingo dugu eta bidegurutze batera iritsiko gara. Aurretik, lorategi botaniko txiki bat ikusteko aukera izango dugu, hainbat motatako zuhaitzekin, bakoitza bere karteltxoarekin. Bidegurutzean ezkerretara egingo dugu, Azpillaga baserri aldera. Hura igaro eta malda handia hastean, buelta hartu eta berriro bidegurutzean joan behar dugu. Berrobiren beste argazki bat ikusteko aukera emango digu horrek.

Bidegurutzean ezkerreara joko dugu, erreka beti ondoan dugula. Aurrerago, herrigunean dagoen zerrategiaren ondotik igaroko gara. Oholekin egindako dorre ugari daude bertan, paisaia berezia sortuz. Aurrera jarraituz, herria zeharkatzen duen errepide nagusira iritsiko gara. Bestaldera pasatuko gara eta justu parean ezkerretara egiten duen bideari jarraituko diogu. Negutegi bate-



Berrobiren ingurunean berdea da nagusi. I.G.L.



Zelai erreka izango du ibiltariak bidelagun eta, besteak beste, abereak ikusteko aukera izango du. I.G.L.



## DATUAK

- **Luzera.** 2.800 metro.
- **Ezaugarriak.** Biratxoa eta hiru joan-etorri.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara eta gero autobusez Berrobiraino.
- **Hasiera-bukaera.** Berrobiko autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Malda erraz bat.
- **Azalpenak.** Erreka ertzetatik paseotxoa.
- **Interesguneak.** Eliza. Udaltexea. Iriarte, Arbideta eta Muñagorri etxeak. Naturgunea.



Galtzastegi baserria eta bere ondoan dagoen harrizko zubia. I.G.L.

Iriarte  
jatexea

ASTEBUKAERAKO MENUA

Antxoak, tipulln erre eta piper morroen entsalada  
Zainzuri naturalak baserriko arrautzarekin 60º-ko urdalaizpiko Iberikoko xerrek  
Aroz saldatxua txerri hirugihararekin eta fole-arekin

---

Legatza barazki kumuskatsuekin edo txerrikume erreka entsaladarekin

---

Marrubiak yogurt saldairekin

---

Elaia, kafea eta BEZA bame: 38 euro

www.iriartejatexea.com • J.M. Goikotxea, 34 • BERROBI • Tel.: 943 683 078

# Aralarko larreen irekiera festa izango da, Larraitzen

10:00etan hasiko da jaia, eta 12:00etan jaurtiko dute suziria; postu eta animalia ugari egongo dira

**Eneritz Maiz** Abaltzisketa

Urteroko ohiturari jarraituz, maiatzaren lehen eguna iristearekin batera Larraitzen jai giroa nagusituko da. Enirio Aralarko mankomunitateak antolatzen duen Aralarko larreen irekiera festa ospatuko dute.

Goizeko 10:00etan emango zaio hasiera jaiari postuen irekierarekin, eta trikitilariak jarriko diote musika goizari. Festa gunean, 11:00etan, Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako Hirugarren Lehiaketa egingo da. 11:30ean, berri, hegazti harraparien erakustaldia egingo dute Belatz Handi elkartearen eskutik.

Aralarko larreak irekitzeko suziria jaurtiko dute, 12:00etan. Suziriarekin batera, langa ireki eta lehen animaliak sartuko dira. Uda bertan pasatzeko, animalia ugari igoko dira Aralarko Parke Naturalak eskaintzen dituen be-lazeetara. Ondoren, idi parek eta zaldiaren arteko proba izango da Larraitzen. Idiak, Zaldibiako bertsolariak Romanenak eta zaldia, Hernaniko Imanol Paollarena. Idi pareak, 1.100 kiloko harria eta zaldiak 1.000 kiloko mugitu beharko dituzte.



Larraitz txiki geratu ohi da maiatzaren lehen egunean. I. GURRUTXAGA

## ↓ Aralarko larreen irekiera festa

### MAIATZAK 1, ASTEARTEA

- **10:00.** Postuen irekiera. Abere erakusketa, eskulagintzako saioak edota bertako produktuek erosteko aukera izango da.
- **11:00.** Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako Hirugarren Lehiaketa.
- **11:30.** Hegazti harraparien erakustaldia Belatz handi elkar-tearen eskutik.

Bertsotan aritzeko lana Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak izango dute. Eta goiz osoan zehar, trikitilariak ibiliko dira giroa alaitzen. Horrez gain, abereen erakusketa, esku langintza saioak, ohiko tresnen erakus-

- **12:00.** Aralarko larreak irekitzeko suziria jaurtiko dute.
- **Ondoren.** Idi parek eta zaldiaren arteko proba. Idiek 1.100 kiloko harria eta zaldiak 1.000 kiloko mugitu beharko dituzte.
- **Bertsolariak eta trikitia.** Mikel Mendizabal eta Bixente Gorostidi bertsolariak eta trikitilariak ere ez dira faltako.
- **17:00.** Triki Beltz taldearekin erromeria izango da.

keta, bertako produktuen salmenta eta Aralarko mapa, liburu eta liburuxkak izango dira. Bazkal ostean ere, jai giroak ez da faltako Larraitzen. 17:00etan erromeria izango da, Triki Beltz taldearekin.

# Txekor errea jateko 180 lagun elkartuko dira, Baliarrainen

Maiatzaren lehen eguna izango da bazkaria pilotalekuan; herritarren artean erreko dute txekorra

**E. Maiz** Baliarrain

Maiatzaren lehen asteartean, Txekor Jatea egingo dute Baliarraingo frontoian. Urteak dararatzate, herritarren artean txekorra erretzen, eta aurten ere ez dute hutsik egingo.

Dagoeneko txartelak erosteko epea bukatuta dago, eta guztira 180 lagun elkartuko dira bazkal-tzeko. Baliarraingo pilotalekua jendez beteko da, eta kasu honetan, txorizo egosia, txekorra en-

tsaladarekin eta postrea banatuko dituzte. Kafea eta kopa ere eskainiko dizkiete bertaratuak.

Mahaiaren buletan 14:00ak aldera elkartuko dira, baina, alde zuretik, Aramako lore saltzailea izango da, plazan. Bertan udaberriko loreak erosteko aukera eskainiko du.

### Auzolanen

Txekorra bezperatik jartzen dute erretzen, eta herritarrek prestatzen dute guztia. Gauen zehar, sua zaindu txekorrari bueltak behar bezala emateko txanda egingo dituzte.

Bezperan prestatzen dute entsalada. Zerbitzari eta garbiketa lanak ere herritarren artean egingo dituzte.

oalegialdea@hitza.info



180 lagun elkartu ziren txekor errea jateko. SARA GOMEZ



## harpidedun izateak badu saria irabazleak

### 1 Gorrotxategi

**Kaxa bana**  
Gourmet Tolosa Teilak  
eta Txokolatezko Cookieak

• **Belen Maizkurrena (Tolosa)**

Eskaera egiteko, hilabete:  
Plaza Zarra, 7 • Tolosa • Tel.: 943-65 12 26 • www.gorrotxategi.com



### 2 Mikel Izagirre

**Ile mozketa**

ileapaindegia  
www.lasonet.com/mikel

• **Iñaki Iturrioz (Tolosa)**

Eskaera egiteko, hilabete:  
Gorosabel, 27 behea • Tolosa • Tel.: 943-67 52 49



### 3 Txindokiko itzala

**Bina sarrera**

• **Bernabe Azpirotz (Leitza)**  
• **Markel Etxeberria (Tolosa)**

Eskaera egiteko, bi hilabete:  
Larraitz • Abaltzisketa  
Tel.: 943-10 43 67 • 628-94 72 53  
www.txindokikoitzala.com



### 4 Donostiako Aquariuma

• **Jon Balerdi (Bedaio)**  
• **Jose Miguel Lasa (Anoeta)**

www.aquariumss.com

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilabetez.



### 5 Lagun Aro GBC

**Sarrera parek**

**LAGUN ARO GBC**  
Gescrap Bizkaia Biltzaile Baxen  
saskibaloi partida

Apirilak 29 igandea  
12:30ean Donostiako Itunben

• **Joxe Mari Beldarrain (Tolosa)**

Sarrerak Tolosako HITZako egoitzan.

Zortzi urteko lanaren ostean, Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkarteak amaitu du bigarren lana, 'Sua'. Aurkeztu aurretik, argazkiekin erakusteka jarri dute.

# Motorrak berotzen hasteko



Ibarrako izaskun auzoan, basurde batekin eginiko grabaketaren une bat. HITZA

**Iñigo Terradillos** Ibarra

**L**aster izango da Ibarrako Eneko Aritzaren Lagunak kultur elkartearen bigarren lana ikusteko aukera. 2004an *Eneko Aritza* film laburra estreinatu zuten, eta orain *Sua* filma jendaurrean aurkezteko prest dute. Estreinaldiaren aurretik, girotzen joateko, filmaren grabaketako argazkiekin erakusketa jarri dute Ibarrako kultur etxean.

Maiatzaren 25era arte izango da erakusketa ikusteko aukera. Goizez, 11:00etatik 13:00etara izango da zabalik, eta arratsaldez, 16:00etatik 21:00etara. Erakusketak 35 argazki ingururekin dago osatua, eta pixkana osatuz joango dira. «Datorren astean, 150 orrialde dituen albuma jarriko dugu, grabaketan zehar egin ditugun ia argazki guztiekin, eta bertako kopiak eskatzeko aukera ere izango da», azaldu du Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kide den Unai Igartuak. Horrez gain, filmean erabili dituzten jantziak ere jarriko dituzte Ibarrako kultur etxean.

Ibarrako kultur etxean erakutsi ostean, Ozaetan jarriko dituzte argazkiak, eta hurrengo geldialdia Tolosan egingo dute. Hain zuzen ere, ekainaren 11tik 29ra izango dira ikusgai argazkiak Tolosako kultur etxean.

**Aurre emanaldia Ozaetan**

Filmaren aurre emanaldiaren aitzakian, festa berezia egin nahi dute Eneko Aritzaren Lagunak elkarteko kideek. Filmaren grabaketako lekuetako bat izan den Ozaetako Otaza auzoan elkartuko dira ekainaren 2an, egun pasa egiteko. «Akelarre moduko bat egin nahi dugu, ekitaldi ugariarekin: jolasak, musika, afaria, aurre emanaldia... helburua, filma egitean izan dugun filosofia berari jarraituz, ongi pasatzea eta parrandaxoa egitea da», adierazi du Igartuak. Nahi duen orok parte hartu ahalko du, eta bertan lo egiteko aukera ere izango da.

**Ia 8 urteko lana**

*Sua* filma egiten ia 8 urte igaro dituzte, eta horregatik, «irrikaz eta ilusio handiz» daude estreinaldirako. Film laburraren kasuan bezala, Euskal Herriko historiaren pasarte batean dago oinarritua, XVII. mende hasieran Pierre de Lancre inkisidoreak Lapurdin egindako tortura eta erailketetan, hain justu.

Ozaetako aurre emanaldiaren ondotik, filma herriz herri aurkeztu asmo du kultur elkarteak. «Ibarran eta Tolosan, esaterako, ekainean izango da, eta Villabonan, ziurrenik, uztailean; Algotan, Seguran, eta beste hainbat herritan ere aurkezpenak zehazten ari gara».



Adin guztietakoak izan dira filmean parte hartu duten boluntarioak. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza/leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**Urte askoan!**  
Zorionak amatxo etxekoen partetik!  
Euskal preso eta iheslariak etxera!

**ETZI**

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Zorionak Olatz!**  
12 muxu handi etxekoen partez.

**Agenda**

**DEIALDIK**

- **Tolosa.** Berrialaguna egiteko aukera izango da, bihar, Trianguano, 10:00etatik 14:00etara.
- **Tolosa.** Naturaldiaren barruan gaur, *¿Está cayendo el cielo sobre nuestras cabezas?* hitzaldia, Topic-en, 19:30ean.
- **Alkiza.** Naturaldiaren barruan bihar, 10:00etan plazan elkartu, eta Urmara gunera joango dira.
- **Anoeta.** Herriraren aurkezpena gaur, 11:00etan, udaletxean.
- **Tolosa.** Tolosa Kantari bihar, 12:00etan, Tontokaletik.
- **Asteasu.** Herrira Eguna bihar. Jaia 11:30ean hasiko da.
- **Tolosa.** Gipuzkoa Encounter bihar 10:00etatik astelehenera bitarte, Usabalen.

**ZINEMA**

- **Villabona.** *Los idus de marzo*, bihar, 19:30ean eta 22:15ean; etzi 19:30ean; eta astelehenera, ikuslearen eguna, 21:30ean.

- **Tolosa.** Asteburuan Leidorren bi filma: *Tenemos que hablar de Kevin* eta *El exótico hotel Marigold*. Lehenengo bihar 19:30ean, eta etzi 22:00etan; eta bigarrena, bihar 22:30ean, etzi 19:30ean eta astelehenera, ikuslearen eguna, 20:30ean. Haur zinea igandean; *Lorax* 17:00etan.

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Talco eta La Maquina-bihar, Bonberenean, 22:30ean.

**ANTZERKIA**

- **Tolosa.** *Lotsa gabelana*, gaur, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Aduna.** Poltsikoko Antzerki Lehiaketako bigarren kanporaketa gaur, 22:30ean, Asvinenean.
- **Zizurkil.** Antzerki Astearen barruan gaur, 22:00etan, *Arrautza kontua*, Atxulondon. Eta igandean 19:00etan *Jira ta bira*, Zizurkil Goiko frontoian.



**UDALATX**

**Kirol trofeoak  
Punpa pilotak**



Letxuga kalea, 2  
TOLOSA  
943 05 25 72

